

Nazionalismoa

JOXERRA GARZIA



BEGI onez ikusten du Fernando Savater filosofo donostiar sonatuak Ekialdeko Europaren bilakaera. Totalismoari higuina dio Denaren

Aurkako Panfletorearen idazleak.

Lastimarik, dio halere, komunismoaren totalismoa hankaz gora ezarri duten herri horiek ba duten halako joera makur ezrazionala: nazionalismoa

Modaz pasea ezezik, gatazka iturri erizten dio gure filosofo argiak nazionalismoari.

Euskal Herriari begiratu baino ez dago, hori horrela dela frogatzeko.

Hemen dena dugu grina gaizto horrek bikoiztuta: eskuina bezala ezkerria, eta baita denek konkistatu nahi baina non dagoen inork ez dakien zentroa ere. Espainian ez dago halako ezaipaketarik. Ezta Frantzia ere.

Horretan arrazoiak du filosofoak. Baina ezaipaketarik eza ez da, berak uste bezala, gure auzo horietan nazionalistak ez dagoelako han denak nazionalista direlako baizik; ezkerria bezala eskuina zentroa, sindikatoak, enpresariak eta filosofoak, hizpidea eman didana barne. Nazionalismo espainiar (edo frantziar) hori ez da egunerok aldarrikatzen. Horretan gu ez bezalakoak dira.

Eraso ere, ez diote nazionalismo horri egunerok eraso egiten. Baina egiten zaionean badaki maru egiten, eraso alfabetoko letra ñaño bat kentzea besterik ez bada ere.

Zer egingo ote luke letrabakar baten ordez hizkuntza osoa kendu nahi izango balitz?

Uzi diezagutela guri ere nazio izaten. Ez genuke areago geure burua nazionalistatzen aldarrikatu.

Albaro ere bai

TXILLARDEGI



ALBARO Reizabal adiskide mintzat daukat. Ohore hori dut, eta orain jakin etazi behar. Erantzantzik Buesa edo Odoñ Elorza arrestatu beharrean, beste abertzale nekagaitz

hau ere Guardia Civil-aren eskutera pasatzea erabaki duenean.

Albarok mendi-gaiurrak maite ditu; bulegokide izan zuen Antton Ibaragurenekin maite zituen bezala. Umore itxuran diximulaturik, bihotz handia du Albarok. Erantzantzik, kolaborazionismo okaztagarrian, arrestatu dituen gainerako lau abertzaleek bezalaxe.

Pozik egon daitezke Atutza, Pozik Erzailuz. Pozik PNV osoa («osoa» idatzi dut, bai, lotsagarrikeria hauek alderdikide guztiak kakazten baititu betirako).

Albaro militante fina da, Euskadi Askatuaren aldeko militantea. Horregatik detentitu du Policia Vascongado-Norteñoak. Albaro Mahai Nazionaleko partaidea izan da, parlamentaria, etb. Albaro, denaren gainetik, presoen eta deportatuen zerbitzari isila eta nekagaitza da.

PNVak Guardia Civilari bere zorioren igortzen dizkionean, Albarok eta gainerakoek, Ipar eta Hegoaldean, zakurrada franco-españolaren tratu leuen pozak dastatzen dituzte. Bapo mutilak!

Ikurriña ezin jartzea, ikastolen etorkizuna sistema espainolean 'integrazteko' projektua, egunkari hau diru-laguntzarik gabe uztea, miloi pila bat ETB2-an gastatzea, fabrikak itxia, kultur elkarrekin oro kolpatzea, Corcuera-legea, herri honen likidazioa, ez dira problema PNVrentzat. PNVrentzat problema Albaro da, eta Albaroren adiskideak eta gogaideak. PNVak, Francok bezala, «pake» nahi du, isiltasuna, futbola; eta, betiokoe, negozio gaitzak egitea. «Sentirse cómodos», badakizue. PNV, Jaurilaritza, Ertzaintza, organizazio «quising-ak» direla esatea, ez da iraina, definizio zehatza baizik. Traidore mordo horrek ez du mespretuzia besterik merezi.

DEIA

Beste enpresa bat: euskal eskola publikoa

Ikastolak geure Herriko nortasun ezaugarriei, geure balore, hizkuntza eta kulturari, eta sozialki solidarioa eta kooperatzailea den geure herri mugimenduen sorrerari fidelak izanik; eskola publiko berri batean, enpresa berri batean, euskal eskola publikoan parte hartu nahi dugu, eskola publiko tradizionala gizarte berriari egokitzea beharrezkoa dela kontutan hartuta, zeina irekiagoa eta autotregulatuagoa, dinamikoagoa eta lehiatzaileagoa, anitzagoa eta internazionalagoa, malguagoa eta desberdinagoa den. Zentzu horretan prest gaude leialtasunetz parte hartzeko, enpresa berri baten antolaketa eta administrazioaren eraketan, Euskal Eskola Publikoan.

Neure egiten ditut Arzalluzek elkarriketa bukatzeko erabili zituen hitzak: «Administrazioa eragin birmoldaketan egin beharko lirateke, nahiz eta dena gainera erori».

J. IÑAKI ETXEZARRETA

HEMEROTEKA



«Esaiozu ea hitzarmena egin nahi duen», «Ea hitzarmena egin nahi duzun dio», «Esaiozu ea isilik egingo den».

OZ / DIARIO DE NAVARRA

Enbata

Enganatzaileak

Hor ikusi ditugu bai joan den larunbatean Parisen errefuxiatuen eskubideen zaintzeko antolatua zen manifestaldian Fabius, Rocard eta beste, luzatuak zitzaizkien mikroetan atzeritarraren deretxoan alde ahoa beteko mintzo (...)

Ezin sinetsia da, poderera helduta hoin epe laburrean, hoin erreki, alderdi batek bere agintzak uka ditza keela. Onets daitezke, azkenean, aldaketa ekonomiko gutti ekar zezaketela sozialistek, bain berstsi diri herriarreteko ekonomiak elkarri lotuak, bata bestearen menpeko, erran daitezke. Egia da, guziz Europar, herrialde batak ezin dezakeela besteengandik

ezberdina den politika ekonomikorik eraman, nahiz Frantziako industrial eta nekazal hautuetaz halitekeen erraitekorik. Baina, zer bilakatu dira 1981an sozialistek sozial eta giza eskubideetaz hitzeman zizkigutenak? Eiki elkartasun, elgar-ulermen, libertate eta garbitasun gehiago izan omen genuen!

EDITORIALA

ARGIA

Gasbidea dela eta, guregaintasunaren premia

Ororen buru ere, gasbidearen afe-

rak Ipar Euskal Herriaren ezintasun politikoak berriz ere nabariri jarri bait du, guregaintasuneko baliabideak emango dizkiguten instituzioen inoiz baino premiazkoagoa dela agertu digu. Soberakian erori gabe, uste dut autonomia bezalako herri egituratze batek beren burua herriazaleztat daukaten hautetsi batzuen jukutria ezinezkoa bilakaraz lezaketela. Zeren honelako politika egituraketa baten hautetsiek orain baino zailago luke beren nahikunde jokatzera eta Pariseko indarraren aitzakiaz ez laitezke baliatzen ahal. Hori horrela, Frantzia Dascon eta bere sozialista lagunak nahitaz herriaren ikusmoldea begiruz hartzea behartuak izango lirateke, eskubiderik gabe eta Parisen babesean bereganatu duten Zuberiako leidersbipa utzita.

ALLANDE SOKARROS

ZUZENDARIARI

Iñaki Etxezarretari

1992-1-23an 'Euskadi prest jarriko dugu' idatzian agertzen denari buruz, zerbait esan nahi genizuke:

1.- Buesaren paper berdina jokatzen duzu, ikastolak defenditzeko transferituak baztertu edo guztiak 'birmoldatu' nahi dituzunean.

2.- Entrepresari kapitalista mentalitate hutsarekin, ezer gutxi egin ahalko dugu, eta idatzi honetan, goitiki behera hori agertzen duzu; ez da kasualitate artikulua eslogan honetan oinarritzea.

3.- Diozu: «Enpresa publikoaren errealitate beltza ezkatutu beharrean, ikastola eutsi eta ito beharrean, edota pribatuak ekonomikoki zokoratu beharrean, hobe luke Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak, bere ahalegin politikoa ondo funtzionatzen duena laguntzeko eta krisian dagoena birmoldatzeko bideratuko balu». Eskolan ez dugu tormilirik egiten, ezin duzu ahaztu, gaur egungo beharrei (ta ez prezeski leialkortasunari) erantzun ahal izateko, eskolok, eta bertako ardatza garen irakasle eta gurasoak, elkarrekin eta ez elkar joko; pentsatzen, ikasten eta solidario izaten jakin eta irakatsi behar dugula. Gestio eta zuzendaritza egokiaren bidez soilik ezin garelako abiatu etorkizunera.

4.- Hezkuntza, zerbitzu

publiko bezala onartuz eta hori diogu ikastolok, nora zoaz enpresa pribatu baten kriterio finantzario hutsekin? Zergatik hainbeste laudiorik pribatuei, edo beraien efikazia ekonomikoenpre-sarialari transferituekiko? Non geratzen da Eskola Publiko Euskalduna?, ez ote, eskola transferitu euskaldun eta ondo funtzionatzen duenik?

Ba bai, ba daude, eta horiek, eta hori aurrera bufuzatu eta eraman duten irakaldeen batera egin behar dugu Euskal Eskola Euskaldun Publikoa eta bakarra.

M.K. IRASTORZA
ETA I. PAGOAGA

Hernani (Gipuzkoa)

Ihauterietan ere euskara kalera

Argi dago, eta behin baino gehiago aipatua izan da hizkuntza batek ezin izango duela bizi gizarte esparru guztietan ez bada erabiltzen. Gure hizkuntzak, euskarak, azken urte hauean nolabait seriotasun itxura hartu du, edo eman diote, dena dela, eta zergatik ez parrandan ere?

Bada denbora Bilbon euskaltzale talde bat bildu ginela jaietan parte hartzeko asmoz, jaien esparruan ere, gure hizkuntza nazionalak

jasaten zuen/duen eraso eta irainak salatzen, eta noiztzen zuen/duen bazterkeriatik atera nahian, edo behintzat, euskaldun bezala gure gunea eskuratzearen auzardia kaleratzearen beharra ikusi genuelako, eta kitto!

Lagun taldea izatek konpartsa izatera pasa zen epe laburrean, garai hartan konpartsa euskaldunen hutsunea betez, gaur egun gureak konpartsa euskaldun bakarra izaten jarraitzen du. 1988ko Aste Nagusian atera ginen itxura hau harturik kalera, 'Hau Pittu Hau', izena jarri genion Iparaldeko pertsonai parrandazale ospetsuaren omenez. Denbora honetan gure alkandora gorriek eta kapela beltzek euskararentzat berreskuratu dituzte Bilboko kale eta bazterrak.

Aste Nagusiaz aparte, ihauterietan ere egun ezin aproposagoak ditugu farre egiteko, eta halaber, euskararen aldarrikapena aho batez ere ozenki plazaratzeko. Aurten goi den bezala egiten dizuegu euskaltzale guztioi parte har dezazuen aktiboki, eta horretarako, Otsailaren 7an (ostirala) arratsaldeko 7etan Alde Zaharreko Dendar kaleko 9. zenbakiko lehenengo pisuan egingo den asanbladara deitzen zaituztegu. Orduararte, beraz,

HAU PITTU HAU
KONPARTSA

Bilbo

GAIA JARRITA



Kontrapasako ehiza

Ekologista haserretuta ez dezu ezar izango kontrapasako uso hoiekin nik pozez kantari nago udaberria badakarkite esate zarra badago bi mila metro alturan datoz horiek hiltzerik ez dago Etxalartikan ikusten dut nik gero ta uso gehiago.

JOSÉTXO IANTZI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

IÑAKI URÍA

Publizitateak:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidetza: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadela 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakiitua, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎: 46 90 22

Faxa: 45 59 57

Arabara: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irmitzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaiak: Barroeta Aldamar, 2-1. eskum. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11